

Ekainaren 21eko 1069/2006 FORU AGINDUA, Etxebarriko «El Boquete» eremuan, E.A.E.A.N.k emandako epaia betetzean, Arau Subsidiarioen aldarazpenari buruzkoa.

Aipatu Foru Aginduaren bidez, ondokoa xedatu izan da:

1. Etxebarri udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioak, «El Boquete» eremuan, behin betiko aldaraztea onartzea, 2002ko urriaren 1eko Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epaiaren burutzapenean; izan ere, aipatu lurzorua urbanizagarria modura sailkatu da, baina egun indarrean den plangintzak esleitzen dizkion erabilerak mantenduz.

2. Ebazpen hau udalari eta Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari jakinaraztea, lehenengoari, ahal denik eta eperik laburrenean, behar den bezala zuzenduta dagoen agiriaren hiru ale aurkez ditzala erregutuaz, ordura arte ezinezkoa baita onartu den hirigintza plangintzako testu artikulatua argitaratzea, Toki Araubideko Oinarrien Araztailea den apirilaren 2ko 1985/7 Legearen 70.2 artikuluan xedatua denarekin adostasunean.

3. Ebazpen hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzea.

Administrazio-bidea amaitzen duen aurreko ebazpen horren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Jurisdikzio horri dagokion Salan; hala ere, zure interesak babes-teko egoki deritozun beste edozein neurri ere erabil dezakezu.

Aipatu epean zehar BHI-010/2006-P05-A espedientea agerian utziko da, aztertu nahi denerako, Bilboko Rekalde Zumarkaleko 18. zenbakiaren 2. solairuan.

Bilbon, 2006ko ekainaren 22an.

Hirigintza eta Udal Harremanen foru diputatua,
JUAN FRANCISCO SIERRA-SESUMAGA IBARRECHE
(I-1228)

ORDEN FORAL 1069/2006, de 21 de junio, relativa a la modificación de las Normas Subsidiarias de Etxebarri en el ámbito de «El Boquete» en ejecución de sentencia dictada por el T.S.J.P.V.

Mediante la Orden Foral de referencia se ha dispuesto lo siguiente:

1. Aprobar definitivamente la Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Etxebarri, en el ámbito de «El Boquete», en ejecución de sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de 1 de octubre de 2002, consistente en clasificar dicho suelo como urbanizable, pero manteniendo los usos asignados por el planeamiento actualmente vigente.

2. Notificar la presente resolución al Ayuntamiento y al Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, instando al primero para que, en el plazo más breve posible, presente tres ejemplares del documento debidamente corregido, no siendo posible hasta entonces la publicación del articulado del planeamiento aprobado, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

3. Publicar la presente resolución en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la resolución, ante la Sala de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, sin perjuicio de cualquier otra medida que estime procedente en defensa de sus intereses:

Durante el referido plazo el expediente BHI-010/2006-P05-A quedará de manifiesto para su examen en las dependencias de Bilbao, Alda. Rekalde, número 18, 2.ª planta.

Bilbao, a 22 de junio de 2006.

El Diputado Foral de Relaciones Municipales y Urbanismo,
JUAN FRANCISCO SIERRA-SESUMAGA IBARRECHE
(I-1228)